

# HORNITZAILEEN JOKABIDE KODEA

---



MONDRAGON  
ASSEMBLY



## 1. XEDEA

Mondragon Assemblyk uste du bere hornitzaileak, kontratistak eta kanpoko laguntzaileak ezinbestekoak direla bai hazkunde helburuak bai zerbitzuaren kalitatea hobetzeko helburuak lortzeko; hori dela eta, haiekin konfiantzan eta elkarrekiko onuran oinarritutako harremanak ezartzea bilatzen du.

Mondragon Assemblyko hornitzailearen jokabide kodea gure enpresaren jokabide kodearen luzapentzat jotzen da, eta haren helburua da hornitzaileen, kontratisten eta kanpoko laguntzaileen portaera arautzeko gutxieneko jarraibideak ezartzea, Mondragon Assemblyren enpresa kulturaren eta arau sistemaren arabera. Kode honetan jasotako irizpideen helburua ez da suerta daitezkeen egoera edo inguruabar guztiak kontuan hartzea, baizik eta jarraibide orokor batzuk ezartzea, jarduera profesionalean norantz jo jakiteko.

Mondragon Assemblyk bere gain hartzen du bere hornitzaileen, kontratisten eta kanpoko enpresa laguntzaileen artean kode honetan jasotako jarraibideekin bat datozen praktikak sustatzeko eta bultzatzeko konpromisoa, eta behar diren bitartekoak jarriko ditu kode hau ezagutu, ulertu eta bete dezaten.

Kode hau betetzeak ez du zerikusirik hornitzaileek, kontratistek eta enpresa laguntzaileek lan egiten duten munduko lekuarekin; horrek ez du esan nahi, ordea, herrialde bakoitzeko legeria beteko ez denik.

Hornitzaile, kontratista eta enpresa laguntzaile guztiak aukera daukate Mondragon Assemblyko Jokabide eta Compliance Batzordera konfidentzialki, fede onez eta errepresalien beldurrik gabe zuzentzeko, eta beren jarduera profesionalean Jokabide Kodearen jarraibideak betetzen ez direla ikusiz gero, jakinarazteko. Jakinarazpen hori gure webgunean ([www.mondragon-assembly.com](http://www.mondragon-assembly.com)) gaituta dagoen S.R. and Compliance kanalaren bidez egin ahal izango dute eta/edo helbide elektronikoa honen bidez: [socialresponsibility@mondragon-assembly.com](mailto:socialresponsibility@mondragon-assembly.com). Jasotzen diren jakinarazpenak konfidentziasunez tratatuko dira, datuen babesaren arloan indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Jokabide Kode honek Nazio Batuen Mundu Itunetik eratorritako konpromisoak eta Mondragon Assemblyren Kudeaketa Sistema Integratuaren Politika jasotzen ditu.

## 2. ERANTZUKIZUN SOZIALEKO JARRAIBIDEAK

- **Giza eskubideak:** Mondragon Assemblyren enpresa hornitzaileek eta laguntzaileek nazioartean onartutako giza eskubideak babestu eta errespetatu behar dituzte beren eragin eremuan, eta bermatu behar dute ez direla eskubideon urraketaren konplize.
- **Haurren lana:** debekatuta dago haurrak erabiltzea LANEren (Lanaren Nazioarteko Erakundea) hitzarmenetako xedapenak urratuz. (LANEren 138. hitzarmena).
- **Lan behartu eta nahitaezkoa:** langileek lan harremana amaitzeko askatasuna izango dute, ezarritako epeak betez. Hornitzaileak ezin izango du, inola ere, lan behartu eta nahitaezkoa erabili. Lan bat behartutzat eta nahitaezkotzat jotzen da lan hori mehatxupearan dagoen pertsona bati eskatzen zaionean eta pertsona horrek bere burua borondatez eskaintzen ez duenean. (LANEren 29. eta 105. hitzarmenak).
- **Elkartzeko askatasuna:** langileek eskubidea izango dute askatasunez elkartzeko, sindikatuetan batzeko eta ordezkariak izendatzeko. Hornitzaileak independentzia eta aniztasun sindikala errespetatzen direla zainduko du. (LANEren 87. eta 135. hitzarmenak).



Hornitzaileak negoziazio kolektiboa sustatzeko konpromisoa hartzen du, elkarrizketa sozialaren elementu nagusi gisa. (LANEren 68. hitzarmena).

- **Ordainsariak eta prestazio sozialak:** Mondragon Assemblyren hornitzaileek, kontratistek eta kanpo laguntzaileek modu egokian ordainduko diete langileei, beren trebetasun, erantzukizun eta funtzioetara doitu, eta aplikatzeko den legeriarekin eta lanean diharduten merkatuen baldintzekin bat etorrita. Hornitzaileak ordainsari berdintasunaren printzipioa aitortzen du lanbide kategoria bereko eta jardun bereko langileei dagokienez, bereziki gizonen eta emakumeen artean. (LANEren 100. hitzarmena).
- **Lanaldia:** lan ordutegia eta atsedena aplikatzekoak diren indarreko legeetara, enpresa sektoreko estandarretara eta LANEren konbentzioetara egokitu behar dira gutxienez, erregulaziorik zorrotzena zein den kontuan hartuta.
- **Bidezko tratua:** debekatuta dago lantokian jazarpen fisikoa, hitzezkoa, sexuala edo psikologikoa, abusua edo mehatxuak egitea edo horiek babestea. Diziplina politika eta prozedurak definituko dira, langile guztiei behar bezala jakinarazi beharko zaizkienak, eta ekintza horiek prebenitzeko eta konpontzeko neurriak hartuko dira.
- **Diskriminazioa eta aukera berdintasuna:** debekatuta dago kontratazioan eta bilakaera profesionalean edozein diskriminazio egitea honako hauetan oinarrituta: kultura, nazionalitatea, sexua, erlijioa, sinesmen politiko eta sindikalak, esperientzien arteko aldeak, lanbide ibilbidea, ezaugarri fisikoak, haurdunaldia, adina, osasun egoera eta sexu orientazioa. (LANEren 111. hitzarmena). Mondragon Assemblyren hornitzaileek, kontratistek eta kanpoko laguntzaileek aukera berdintasuna sustatuko dute kontratazioan, ordainsarrietan, prestakuntzarako sarbidean, sustapenean eta garapen profesionalean.
- **Tokiko komunitateak eta herri indigenak:** Mondragon Assemblyren hornitzaileek, kontratistek eta kanpoko laguntzaileek komunitateen eskubideak errespetatu beharko dituzte, indigenen eskubideak barne, jarduten duten lekuetan, eta konpromisoa hartuko dute beren jarduerak ez dezaten eragin negatiborik izan beren eragin eremuetan bizi diren pertsonen bizimodu eta lan tradizioaletan.
- **Osasuna eta segurtasuna:** hornitzaileak konpromisoa hartuko du prebentzioan oinarritutako osasun eta segurtasun politika eraginkorrak abian jartzeko, ekintza planen eta konpromisoen bidez, bakoitza bere erantzukizun mailaren arabera inplikatur, solaskide sozialak barne. (LANEren 155. hitzarmena).  
Langileek eduki behar dute aplikatzekoak diren laneko osasun eta segurtasun estandarrak betetzen edo gainditzen dituen lan ingurune osasungarri eta seguru bat. Langileengan, bezeroengan, erabiltzaileengan eta instalazioen segurtasunean eragina izan dezakeen edozein arrisku egoera behar bezala jakinarazten, ebaluatzen eta kudeatzen dela zaindu behar da.
- **Ingurumena:** hornitzaileek, kontratistek eta kanpoko laguntzaileek ingurumena babesteko konpromiso iraunkorra izango dute, eta aplikatzeko den tokiko eta nazioarteko legerian ezarritako estandarrak eta eskakizunak beteko dituzte. Ingurumen irizpideak negozio prozesuetan, proiektu, jarduera, produktu eta zerbitzu berrietan eta hornitzaileen hautaketan eta ebaluazioan integratuko dituzte. Kutsaduraren prebentzioa eta etengabeko hobekuntza bermatuko dira.

### 3. COMPLIANCE JARRAIBIDEAK

- **Zintzotasuna:** Mondragon Assembly taldeko enpresek eta haien hornitzaileek, azpikontratistek eta enpresa laguntzaileek konpromisoa hartu dute beren negozioko zintzotasunez eta legezko betekizunen arabera egiteko, aplikatzekoak diren legeei eta enpresa etikako nazioarteko estandarrei atxikitzen baitzaizkie. Lan egiten dugun herrialdeetan aplikatzekoak diren lege eta araudi guztiak betetzen ditugu.



- **Ustelkeria eta eroskeria:** Mondragon Assemblyren hornitzaileek, kontratistek eta kanpoko laguntzaileek, hirugarrenekin eta, bereziki, beren jarduera garatzen duten herrialdeetako agintari eta erakunde publikoekin dituzten harremanetan, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko nazioko eta nazioarteko xedapenen arabera jardungo dute, eta, bereziki, ELGAREN Konbentzioak transakzio komertzialetan atzerriko funtzionario publikoen eroskeriaren aurkako borrokari buruz ezarritako printzipioen arabera. Mondragon Assemblyrekin nahiz beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin dituzten harreman komertzial, profesional edo administratiboetan eragin desegokia duten opariak edo kontentsazioak ezin izango dituzte onartu, eskaini edo eman, ez zuzenean, ez zeharka.
- **Interes gatazka:** interes gatazkak ekiditen ditugu, bereziki, Mondragon Assemblyko langile batekin hornitzaile batekin izan dezakeen edozein finantza interesen berri emanda, eta zuzenean edo zeharka Mondragon Assemblyko hornitzaile batengandik –hari negozioak emateko xedez– inolako onurarik ez onartuta ez eskatuta. Ez dugu onartzen hirugarrenek eta hornitzaileek Mondragon Assemblyko langileengan edo haien senideengan eraginik izatea edo eragiten saiatzea, opariak, mesedeak, entretenimendua, onura pertsonalak edo lehentasunezko tratua emanaz, baldin eta tratua hori dimentsio xume eta/edo arrazoizkotik harago bada eta kulturalki onargarritzat edo abegi on hustzat jo ezin bada. Ez da onartuko gure langileek, zuzendariak edo Mondragon Assemblyren izenean dihardutenek erabakiak hartzeko prozesu objektiboan eragiteko asmoz egindako opari edo mesederik.
- **Kapital zuriketa:** Mondragon Assemblyren hornitzaileek, kontratistek eta kanpoko laguntzaileek neurriak hartu beharko dituzte transakzio ekonomikoetan kapital zuriketa prebenitzeko. Erne egon behar da gure negozioarekin lotuta egon bai, baina identifikatu gabeko iturrietatik edo aitortu gabeko banku kontuetatik datozen ordainketekin, eta ordaintzen duen aldearekin loturarik ez duten banku kontuekin, eta ordainetan jasotzea espero ditugun zenbatekoekin lerrotatuta ez daudenekin.
- **Pribatutasuna eta informazioa:** hornitzaileek, kontratistek eta kanpoko laguntzaileek Mondragon Assemblyrekin dituzten harreman komertzialen ondorioz jasotzen duten informazioaren zintotasuna eta konfidentzialtasuna zaintzeko betebeharra dute. Mondragon Assemblyrekiko harremana amaitu ondoren ere, konfidentzialtasun betebeharrak bere horretan jarraituko du. Herrialde bakoitzean datuak babesteko indarrean dagoen legeria bete behar dute, intimitaterako eskubidea errespetatuz eta hirugarrenek emandako datu pertsonalak babestuz.
- **Jabetza intelektuala:** Mondragon Assemblyren hornitzaileek, kontratistek eta laguntzaileek Mondragon Assemblyren jabetza intelektuala babesten dute, besteak beste, patente eskubideak, markak, domeinuen izenak, erreproduzio eskubideak, diseinu eskubideak, datu baseak erauzteko eskubideak eta ezagutza tekniko espezializatuak buruzkoak. Hornitzaileek, kontratistek eta kanpoko laguntzaileek arlo honetako arauak eta prozedurak beteko dituzte hirugarrenekin dituzten harremanetan.

#### 4. ETIKA KOMERTZIALEKO JARRAIBIDEAK

- **Lehia leiala:** negozio, publizitate eta lehia estandar bidezkoak mantenduko dira, eta fiskalitate arduratsua egingo da, zerga betebeharrak epe barruan aurkeztuz eta ordainduz eta kontabilitate bikoitza saihestuz.
- **Sustapenak eta publizitatea:** Mondragon Assemblyren hornitzaileek, kontratistek eta kanpoko laguntzaileek tentu handiz zaindu behar dituzte Mondragon Assemblyren irudia eta ospea beren jarduera profesionalean. Era berean, Mondragon Assemblyren irudia eta ospea errespetatzen eta behar bezala erabiltzen direla zainduko dute bai langileek bai azpikontratutako enpresek. Produktuak eta zerbitzuak merkaturatzean, giza duintasuna, osasuna eta segurtasuna errespetatzen dituzten sustapenak eta publizitatea erabili behar



dituzte, engainagarriak ez direnak eta legez kanpoko jokabideak, jokabide arriskutsuak edo jasangarritasunaren eta erantzukizun sozialaren printzipioen aurkakoak ez direnak.

- **Kalitatezkoak eta seguruak diren ondasun eta zerbitzuak:** hornitzaileek, kontratistek eta kanpoko laguntzaileek entregatzen dituzten produktuek eta zerbitzuek aplikatzekoak diren legeek eskatutako kalitate eta segurtasun estandar eta parametroak bete behar dituzte, eta arreta berezia jarri behar dute prezioak eta entrega epeak betetzean.
- **Kontratuak:** Mondragon Assemblyk eta haren hornitzaileek, kontratistek eta laguntzaileek gardentasunaren, egiazkotasunaren, konfiantzaren eta fede onaren printzipioen arabera landu eta beteko dituzte kontratuak. Era berean, jarrera menderatzaile posibleen ondoriozko abusuzko jarduerak ekidin behar dituzte. Ondasunen eta zerbitzuen ezaugarriei, prezioei, aurrekontuei, bermeei, aseguruiei eta zergei buruzko informazio argia, osoa eta egiazkoa eman behar da.
- 

## 5. KODEA ONARTZEA ETA BETETZEA

Mondragon Assemblyren hornitzaile, kontratista eta kanpoko kolaboratzaile guztiek nahitaez bete behar dute Jokabide Kode hau.

Hornitzaileek, kontratistek eta kanpoko laguntzaileek mekanismo egokiak ezarri beharko dituzte kode hau beren langileen artean zabaltzeko; bereziki, Mondragon Assemblyrentzat lan egiten dutenen artean zabaltzeko.

Halaber, haien hornitzaile, kontratatzaile eta kanpoko laguntzaile propioek ere Jokabide Kode honetan jasotzen direnen pareko jardute printzipioak eduki ditzaten arduratuko dira.

Mondragon Assemblyk konpromiso handia espero du hornitzaileen, kontratatzaileen eta kanpoko laguntzaileen aldetik, Hornitzailearen Jokabide Kodea betetzeari dagokionez.

Mondragon Assemblyk harreman komertzialak amaituko ditu kode honetan zehaztutako jokabide jarraibideak urratzen dituzten hornitzaile, kontratatzaile eta kanpoko laguntzaileekin; bereziki giza eskubideei eta praktika ustelei dagokienez.

## 6. INDARRALDIA ETA ONARPENA

Jokabide Kode hau Jokabide eta Compliance Batzordeak onartzen du. Aldizka berrikusiko da, Erosketa, Compliance, Ingurumen eta Erantzukizun Sozialaren arloek proposatuta. Horretarako, hornitzaileek eta kontratistek egindako iradokizunak eta proposamenak hartuko dira kontuan.